

5. Kanalak

Gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino iristeko moduari kanala deritzogu. Azken honetan, bi kanal mota daude: zeharkakoa eta zuzena. Gure kasuan kanal zuzena erabiliko genuke, denda fisiko bat edukiko dugunez, bezeroekiko erlazio zuzena edukiko dugulako.

Gure kasuan, kanal propioak erabiliz eskaintzen dugun balorezko proposamena bezeroengana ailegatuko da.

Kanal propioari dagokienez, denda propio fisiko bat dugu Donostian eta beste denda on-line bat; horrela bezeroak etxetik erosi edo dendara joateko aukera dute, beraien lehentasunen arabera.